BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

1359

AGINDUA, 2014ko otsailaren 24koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, «Fundación Victor Tapia – Dolores Sainz» fundazioaren estatutuetako 14. eta 29. artikuluetan egindako aldaketak onartu eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko egindako eskabidearen espedientea ikusi eta aztertu da.

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2014ko urtarrilaren 20an, Herri Administrazio eta Justizia Sailaren Erregistroan, sarrera eman zaio Catalina Arbaiza Zabalo andreak Víctor Tapia – Dolores Sainz fundazioaren izenean eta ordez aurkeztutako eskabideari.

Eskabidearekin batera, doña Catalina Arbaiza Zabalo andreak (Víctor Tapia – Dolores Sainz fundazioko idazkari administratzaile ez-patronatukidea) 2014ko urtarrilaren 7an emandako fundazioaren erabakiak publiko egiteko eskritura publikoaren kopia baimendu bikoitza aurkeztu da. Kopia hori fundazioaren izenean eta ordez aurkeztu du Bilboko notario José M.ª Fernández Hernándezen aurrean (protokolo-zenbakia: 3).

Eskritura publiko horretan sartu zen Catalina Arbaiza Zabalo andreak –fundazioko idazkari administratzaile ez-patronatukide gisa, eta lehendakariaren oniritziarekin– 2013ko abenduaren 11n emandako ziurtagiria, 2013ko abenduaren 11n Patronatuak egindako bilerarena, zeinean, besteak beste, aho batez onartu baitzen fundazioaren estatutuetako 14. eta 29. artikuluak aldatzea.

Eskrituraren zati nagusian, aldatutako artikuluen berridazketa jasotzen da, osorik, bai eta fundazio-estatutuetako testu berri osoa ere.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Zerbitzu Teknikoek aztertu dute espedientea, eta, ondoren, ebazpen-proposamena eman dute. Hona hemen horretarako kontuan hartu dituzten

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari dagokio fundazioaren estatutuak aldatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala ezarrita dago: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3.1 artikuluan; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 4.1.a) artikuluan; Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuan; eta Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzekoan.

Bigarrena.– Espediente honi funtsezko iritzitako datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki, hauek: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 31. artikuluan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onar-

tzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 44. artikuluan eskatutakoak; aplikagarriak diren lege eta erregelamenduetan ezarritakoarekin bat dator aldaketa.

Ikusirik aipatutako arauak eta aplikatzekoak diren gainerako arauak, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Víctor Tapia – Dolores Sainz fundazioaren estatutuen 14. eta 29. artikuluetan egindako aldaketak onartzea.

Bigarrena.– Fundazioaren estatutuetan egindako aldaketa hori inskribatzeko agintzea, agindu honen datarekin, eta eskritura publikoan ezarritakoarekin bat etorriz. Eskritura hori –bertan, estatutuen aldaketa jasotzen da– Catalina Arbaiza Zabalok egiletsi zuen –fundazioaren izenean eta ordez, fundazioko idazkari administratzaile ez-patronatukidea denez–, 2013ko urtarrilaren 7an, Bilboko José M.ª Fernández Hernández notarioaren aurrean (protokolo-zenbakia: 3).

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta interesdunei bidaltzea.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko otsailaren 24a.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.